

# Ikasleen Txokoa

# Langile Ikastola



Aurrerapena ala atzerapena? / II

DBH 4



**KATTALIN PEREZ**  
KAZETARITZA IKASLEA:

«Egia esateko, albiste bat ematea ez da gehien mugitzen nauena, iritziak gehiago erakartzen nau» / III

DBH 4

IV / Galtza gorri-gorriak

MAIDER DE LAS HERAS DBH 1

IRITZIA:

IV / Igogailua bai ala ez?

I.ANSORENA. DBH 2

Egileen argazkia / IV



Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

LANGILE IKASTOLA

# Aurrerapena ala atzerapena?

BADIRA jada urte asko gizakia izaki zibilizatu bihurtu zela hitzari eta idazkerari esker. Horrela, animaliak izateari utzi eta pertsona bilakatu ginen. Baina, zer gertatzen da gaur egungo gizartean? Zergatik ez da hitza izeneko elementu liluragarri hori erabiltzen? Zergatik ematen du zaplaztekoz edo irainen bitartez bakarrik ulertzen garela?


Hausnarketa hauen adibide argi bat eskoletan aurki dezakegu, non ume eta nerabeek lagunak egiten eta beraiek bezalakoekin elkarbizitzen ikasten duten. Baina ikastola samurtasunez gogoratuko duzun aldi ederra izan daiteke, edota zoritxarrez, berriro bizitzen saiatuko ez zaren infernua..

Bullying-az hitz egiten ari naiz, umeen eta nerabeen artean modan jarri dela ematen duen kontzeptu bat. Bullying-a, fisikoa nahiz psikologikoa den tratua, egunetik egunera geroz eta gehiago ematen da gure inguruan, eta ez dirudi irtenbiderik duenik, izan ere "umeen gauzak dira..." edo "hazten eta indartsuago egiten laguntzen die" edo "bortizkeriari, bortizkeriarekin erantzun behar zaio" gero eta gehiago entzuten baititugu gure inguruan.

Gizarteak konponbide bat aurkitu behar du, eta pertsonalki, indarkeriari aurre egiteko neurririk hoberena, bere aurkariari aurre egitea dela deritzot: hitzarekin.

Borrokari, irakasle, lagun eta gurasoak, borrokatuko dute muturrekoak eta irainak erabiltzen dituztenen aurka.

Bullyinga da nahita eginda



eduardo garé / eduardo espinilla / elvira minguez / antonio de la torre / luis homar / paz padilla / frank crudele / blanca apiláñez / ariadna gaya / javier bódalo / gorka zubeldia / albert baulies /

FILMAX ENTERTAINMENT PRESENTA UNA PRODUCCIÓN DE CASTELAO PRODUCTIONS Y ANTENA 3 FILMS EN ASOCIACIÓN CON HOSPIWOOD Y EL TERRAT 'COBARDES' EDUARDO GARÉ - EDUARDO ESPINILLA - ELVIRA MINGUEZ - ANTONIO DE LA TORRE - LUIS HOMAR - PAZ PADILLA - FRANK CRUDELE - BLANCA APILÁÑEZ - ARIADNA GAYA - JAVIER BODALO - GORKA ZUBELDIA - ALBERT BAULIES  
MÚSICA: ENRIQUE SALA MONTAÑE DE SORIANO / ORIOL TARRAGÓ  
MEZCLAS: MARC ORTIS MONTAÑE / DAVID GALLART DIRECTOR ARTÍSTICO / BALDER GALLART DIRECTOR DE FOTOGRAFÍA / DAVID OMEDES A.E.C.  
DIRECCIÓN DE PRODUCCIÓN: TERESA GEFELL & CARLA PÉREZ DE ALBÉNIZ  
PRODUCTOR EJECUTIVO JUAN CARLOS CABO CO-PRODUCTOR EJECUTIVO ALBERTO MARINI  
PRODUCTORES ASOCIADOS: JOSÉ CORBACHO & JUAN CRUZ  
PRODUCTORES EJECUTIVOS: JULIO FERNÁNDEZ & CARLOS FERNÁNDEZ  
PRODUCCIÓN POR TEDY VILLALBA PRODUCCIÓN POR JULIO FERNÁNDEZ  
ESCRITA Y DIRIGIDA POR JOSÉ CORBACHO & JUAN CRUZ  
© 2008 CASTELAO PRODUCTIONS - ANTENA 3 FILMS

www.cobardeslapelicula.com

'Cobardes' pelikula bullyingari buruzko pelikula da, 2008an estreinatu zena.

errepikatzen den tratua txar fisikoa, hitzezkoa, psikologikoa, emozionala, sexual edo/eta ez pertsonala, sistematikoa eta jarraitua, non botere desoreka bat dagoen eta gainera erasotzaileak sufriarazten ikasi eta horrekin gozaten duen. Honek ezin du batere ona izan; batez ere salaketa gaizki ikusita dagoen gizarte batean eta isiltasunaren legearekin ekintza ikusten dutenak babesten direnean. Ikara edo

biktima bihurtzeko beldurragatik, uztasunagatik, pasotismoagatik eta berekoikeriagatik, torturak bere bidea jarraitzen du, erreka batek egiten duen moduan uharka batek geldituko ez balu, tragikoki bere buruaz beste egitera iritsi daitekeelarik ere.

Normalean pertsona talde batek nahi duena egiten du beste batekin, horrela pertsona hori gutxiagotuz, irainduz... Erasotzailea pertsona ezaguna edo

ospetsua izan ohi da taldean, autokontrolerako zailtasun handiekin, bulkada emozionalek gaituzten duten gizakia, "tsunami" emozional bat bizituz, kanporakoitasuna eta ezinikusia erakutsiz erasotua. Pertsona hau bere ekintzengatik errugabete egiten da eta gainera gizarteak babestu egiten du aitzakia bezala bere balore eta moraltasun falta jarrita.

Erasotuak; ordea, harreman eta lagun gutxi ditu eta horretaz gain, gizarte trebetasun gabezia larriak eta inhibizio eta mende-kotasun harremanak ditu. Emozionalitate ezkorra du: beldurra, antsietatea, segurtasun falta... Oso lotsatia da, zaurigarritasun handia adierazten du eta autoestima baxua du, are gehiago erasotua denean.

Irakurle maiteak, norbait erruduntzat hartzekotan gure burua hartu beharko genuke, gai hauek alde batera uzten baititugu beste norbaitek noizbait konponduko dituelakoan.

Hau guztia txikitatik etxean jasotzen den hezkuntza faltaren errua ere bada. Gizarteko erregina den telebistari lotuta, eta liburuak alde batera utzita, kontsumo mezuek eta batez ere biolentziak, gure izatea deuseztatzen dute, horrelako ondorioak ekarriz.

Beraz, irtenbidea hitza dela eta hau haurtzarotik landu behar dela jakinda, zergatik ez lehen bait lehen hasi? Zergatik ez bukatu txikizio honekin? Hainbat urtetako garapena honetarako? Nik ezetz diot eta zuk? ||

DBH 4  
Langile Ikastola



KATTALIN PEREZ - KAZETARITZA IKASLEA

# «Egia esateko, albiste bat ematea ez da gehien mugitzen nauena, iritziak gehiago erakartzen nau»

LANGILE ikastolan ikasitako 20 urteko hernaniarra kazetaritza ikasten ari da Bilbon. 3garren maila ari da egiten, eta Bilbon bertan bizi da, horregatik ez da aspaldi honetan asko etortzen.

Zergatik aukeratu zenuen kazetaritza? Zure lehen aukera izan al zen?

Kazetaritza ez zen nire lehenengo aukera izan. Zientzietatik hasi nintzen, eta batxilergoan, osasun zientifikoa egin nuen... mila gauza egin behar nituen; ontología, geobiologia... baina gero, nirea letrak zirela konturatu nintzen. Eta pixka bat tanteatu ondoren, kazetaritza aukeratu nuen.

Noiz eta non hasi zinen kazetaritza ikasten?

Bilbon, Leioan hasi eta han jarraitzen dut.

Prensa idatzia, ahozkoa... zein da gehien gustatzen zaizuna?

Nahiz eta bere anonimotasuna eta espontaneitateagatik irratia gustatu, prentsa idatzia dut gogokoen.

Kazetaritza zer da, maskulinoa ala femeninoa?

Kazetaritzan gehiengoak gizonetakoak dira, ikasleak gehienak emakumezkoak badira ere.

Albiste bat ematerakoan, zein gai duzu gustokoen?


Albiste bat ematerakoan, kultura dut gustokoen, nahiz eta nazio arteko politika interesgarriena izan, zeresan handia ematen duelako. Hala ere, gehien mugitzen nauena iritzia ematea da.

Pixu konpartitu batean bizi al zara?

Lehenengo urtetik egon naiz pixukideekin, urteetan zehar aldatzen joan direnak eta, oso ondo egia esan. Gogorra da, azkenean, dana zuk egin behar baituzu, baina gero satzfazio handiak ere ematen dizkizu.

Zer egiten duzu denbora librean?

Sekulako aukera dago Bilbon: an-



Kattalin Perez, kazetaritzako ikaslea.

“ Albiste bat ematerakoan, kultura dut gustokoen, nahiz eta nazio arteko politika ere interesgarria izan. Hala ere, gehien mugitzen nauena iritzia ematea da.”

tzerkiak, kontzertuak, museoak, hitzaldiak... bestela, poteak hartzera joaten gara.

Zer diozu prentsa arrosari buruz?

Horri prentsa deitzea ere... Batetik, prentsa arrosean lan egiteko ez da beharrezkoa kazetaritza ikastea. Izan ere kazetariak direla esaten duten gehienak ez dira kazetariak. Bestetik, kalitatea eta estiloa direla

“ Prentsa arrosako kalitatea eta estiloa kontuan izanda, gaur egun ez nuke bertan lan egingo; baina argi dago saltzen den prentsa dela, beraz, zer edo zer izango du.”

eta, gaur egun ez nuke bertan lan egingo; baina argi dago saltzen den prentsa dela, beraz zer edo zer izango du.

Eguraldia emateko ikasketa berezirik eduki behar al da?

Uste dut klimatologoa izan behar zarela. Agian kazetaritza titulua dute, baina klimatologian espezializatua izan behar da.

Elkarrizketarik egin al duzu noizbait? Bai, egin izan ditut batzuk, baina ez lanerako, unibertsitaterako baizik.

Zein izan da gogoragarriena? Egia esan, inor berezirik ez. Normalean gauza berezietan sartuta dauden lagunei; musikariei, kolektibotan dabilzanei...

Nolako zen ikastolen artean idazten zen "kronika" DBH-n zinenen? Parte hartu al zenuen?

Ni DBH-n nengoenean hasi ginen ikasleak kronikan parte hartzen. Baina nik ez nuen parte hartu. Orain zuei esker lortu dut. ■

# Galtza gorri-gorriak

LURRALDE urrun bateko baso batean, galtzagorri batzuk bizi ginen. Oso alaiak ginen eta egunero dantza egiten genuen. Zerbait entzun edo zuhaitzen artean zerbait mugitzen ikusten bagenuen, segituan gure etxe bitxi eta txikietara abiatzen ginen korrika batean. Dirudienez oso beldurtiak ginen, baina, hori bai, oso langileak.

Gaua iristen zenean, lehen esan dudan bezala, dantzatzen hasten ginen eta horrela abesten genuen:

*Galtza gorri-gorriak,  
gu gara izugarriak.  
Gauero salda bero,  
Goizean bakea gero.*

Kanta hori abestu ondoren, ondoan edukitzen genuen lapi-

ko batera basoko zuhaitzetako sagarrak botatzen genituen. Horrela, egunero ibiltzen ginen. Baina ni, Angy, aspertzen hasia nintzen horrenbeste dantza egiteaz, horregatik, hau pentsatu nuen: "dantza hau egiteari utzi behar genioke". Hori pentsatu eta gero ideia bat bururatu zitzaidan: "Sute bat sortuko dut, horrela gaueko dantza egiteari utziko diogu!" pentsatu eta egin ere egingo nuen.

Gaua iritsi zenean, pentsatu nuen bezala, sutea sortzen hasi nintzenean katu beltz bat ikusi nuen, baina galtzagorri ausarta nintzenez, geldi-geldi geratu nintzen, estatua bat banintz bezala. Katua nere ondolik pasa, alde egin eta sutea sortzen jarraitu nuen. Sutea sortu nuenean korrika joan nintzen

gainontzeko galtzagorriei abisatzera "SUTEA, SUTEA!" denak oihuka hasi ziren, eta dantza bertan behera utzi zuten gainontzeko galtzagorriek. Ni, lasai-lasai, ohera joan eta segituan lo hartu nuen.

Hurrengo egunean, esnatu nintzenean, galtzagorri guztiak kanpoan zeuden galtza gorriak jantzi gabe. Nik galdetu nien: "Zer gertatzen da?" eta besteek "Norbaitek galtza gorriak lapurtu dizkigu!", "gaueko dantza egin bagenu..." esan zuen beste batek. Orduan, konturatu nintzen gaueko dantza egitea beharrezkoa zela; damuturik nengoen; nere errua izan zen dantza ez egin izana. Batean, animoa piztu eta esan nuen: "Lasai lagunok, nik aurkituko dizkizuet zuen galtza gorri guztiak!".

Bila eta bila pasa nuen goiz osoa. Ustekabean, aurreko gaueko katu beltz berbera ikusi nuen arte. Katuari jarraitu nion bizi zen tokiraino.

Berak zituen galtza gorri guztiak! Geroago, katua joan zenean, galtza gorri guztiak hartu nituen, eta etxeruntz abiatu nintzen. Iritsi nintzenean, galtzagorriak pozarren jarri ziren. Batek esan zuen: "Eskerrik asko Angy!", beste batek: "Angy gure heroia zara!" Baina ni, enegoen batere eroso esaten zidatenarekin, gainontzeko galtzagorriek ez baitzekiten nik neuk sortu nuela sutea. Eta oihukatu nuen: "Ea, entzun denok!". Dena isil-isilik geratu zen. "Gogoratzen ahal zarete atzoko suteaz? Ba... nik sortu nuen! Gaueko dantzaz aspertua nengoen eta!" baina beste

galtzagorri batek esan zuen: "Bai, baina egin duzuna konpondu duzu eta... barkatuko diogu; ez da hala lagunok?" denek baietz esan zuten "Bai, bai, bai...!". Gaua iritsi zen eta gaueko betiko dantza egiteko ordua zen; esan genuen galtza gorri guztiak batera:


GOAZEN DANTZA EGITERA!!!

Galtza gorri-gorriak,  
gu gara izugarriak.  
Gauero salda bero,  
Goizean bakea gero.

Hala bazan edo ez bazan, katua galtza gorri mozorrotu bat zan... II

Maidar De las Heras  
DBH 1  
Langile Ikastola

## Alearen egileak:



Langile ikastolako ikasleak izan dira gaurko alearen egileak.

## IRITZIA

### Igogailua bai ala ez?

Hernaniko udaletxean sarritan izaten dituzte ideia zoragarriak herriko biztanleei erraztasunak emateko. Oraingo honetan, tren geltokiaren ondoan igogailu bat jartzeko ideia izan dute. Nire ustez ez dago igogailuaren erakuntza beharrik.

Hasteko, ingurunea asko kaltetuko lukeela iruditzen zait, igogailua eraiki nahi duten tokian zuhaitz ugari baitago eta hura eraikitzea, zuhaitzak kentzea izango delako.

Bestalde, zailtasunak dituztenentzat ongi dagoela iruditzen zait, beraiei gauzak asko erraztuko baitzikie. Baina, igogailua baino zerbait merkeagoa den beste irtenbide bat ere bilatu daiteke. Gainera esan beharra dago, igogailua jarri nahi duten inguruetan jende asko ibiltzen dela, bai jende heldua paseatzen eta baita jende gazte ugari ere. Inguru hartan taberna dezente daudenez, gazteak dira gehien ibiltzen direnak eta gainera gauez. Gaur egungo garai hauetan gazteak maiz ikusten dira kalean gauza publikoak puskatzen, denbora pasa bat izango balitz bezala. Azken inkesta publiko batek dioenez, gazteen %9-ak altzari publikoak puskatzeagatik delituak ditu. Datu hau kontuan hartuta ondorioztatzen da igogailua ere ez dutela bakean utziko hura ere hautsi arte.

Bukatzeko, esan beharra dut lana eta dirua aurreztuko direla, gaur egun oso entzuna den krisi ekonomikoari aurre hartzeko modu bat izan daitekeelarik, gainera denak igogailu gabe moldatu gaitezkeela uste dut gaur egun arte hala moldatu baikara. II

I. Ansorena. DBH 2  
Langile Ikastola.